

LURRALDE PLANGINTZA, HIRIGINTZA ETA HIRI BERRONERATZE ZUZENDARITZA
INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA ETA ETXEBIZITZA SAILA
EUSKO JAURLARITZA



DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y POLÍTICA TERRITORIAL

2018 A.P.I. 27
ABR. 27



Donostia kalea, 1. Lakua II, 2. Solairua; 01010 Vitoria-Gasteiz, EUSKO JAURLARITZA

SARRERA	IRTEERA
Zk. 346230	Zk.

Erreferentzia: EAEko Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen berrikuspenaren hasierako onarpenerako dokumentua

Mikel Otero Gabirondo jaunak, 34.086.456 NAN-zenbakidunak, Euskal Herria Bildu Taldeko Legebiltzarkide izanda eta jakinarazpenetarako hurrengo datuak izanda:

EH Bildu Legebiltzarreko taldea. Eusko Legebiltzarra. Becerro de Bengoa kalea, z/g. 01005, Gasteiz. Telefonoa: 945004116. E-maila: ehbildu7@legebiltzarra.eus ,

Zuzendaritza honen aurrean,

ADIERAZTEN DU:

EZAGUTU DUELA 2018ko otsailaren 28ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian egindako iragarkia, zeinaren bidez argitara eman baita otsailaren 20ko Agindua, non Lurralde Plangintza eta Etxebizitza sailak hasierako onarpena eman baitio Lurralde Antolamendurako Gidalerroen berrikuspenari buruzko dokumentuari.

EZAGUTU DUELA 2018ko apirilaren 30 arte pertsona eta erakunde orok egoki iritzitako alegazioak egin ditzaketela.

EZAGUTU DUELA esandako hasierako onarpenaren dokumentua eskuragarri dagoela <http://www.euskadi.eus/lag-berrikuspena/web01-s2ing/eu/> helbide elektronikoan;

AZTERTU DITUELA esandako hasierako onarpenaren dokumentua, ondorioztatuz Lurralde Antolamendurako Gidalerroen berrikuspenari buruzko dokumentuan aldaketa sakonak egin beharko liratekeela.

Eta, adierazitakoaren ondorioz,

HURRENGO ALEGAZIOAK EGITEN DITU:

LEHENA: Diagnostiko sakonago baten beharraz. Indarrean dauden 1997ko LAGen ondorioei buruzko diagnostiko sakon bat txertatu beharko litzateke dokumentuaren memorian. Beharrezkoa ikusten dugu orain arteko ibilbidearen onurak, akatsak eta gehiegikeriak identifikatzeko.

BIGARRENA: Aplikazio-arauetako 2. Artikulua. Izaera. III. kapitulu jasota dauden gidalerroak gomendiozkoak izatea ezbaian jartzen dugu. Horrela, III. kapitulu horretan jorratzen diren gaien garrantzia bigarren mailako egoera batean jartzen direla uste dugu. Hala nola, euskara, kultura, genero ikuspegia, paisaia, landa-habitata, mugikortasuna, etab.

HIRUGARRENA: Aplikazio-arauetako 9. artikulua. Eraldaketa-ardatzak. Izena zein kontzeptua 2012ko LAGen berrikuspen desarrollistatik hartu dira. Izenari dagokionez, uste dugu desarrollismoarekin lotura gutxiago edukiko lukeen deitura bat izan beharko litzateke. Eta, kontzeptuari dagokionez, uste dugu LAGen berrikuspen honek gehiago garatu beharko lukeela. Bestela, aurreikus daiteke Lurralde Plan Partzial bakoitzak modu ezberdin batera ulertuko duela.

LAUGARRENA: Aplikazio-arauetako 11. artikulua. Hiri hazkundearen perimetroa. Kontzeptu interesgarria iruditzen zaigu printzipioz, baina, eraldaketa-ardatzei buruz esan bezala, uste dugu LAGen berrikuspen honek gehiago garatu beharko lukeela. Bestela, aurreikus daiteke Lurralde Plan Partzial bakoitzak modu ezberdin batera ulertuko duela.

BOSGARRENA: Aplikazio-arauetako 12. artikulua 4.b) puntua. Artikuluak hurrengo dio: *“Merkataritza-ekipamendu handien gehieneko azalera mugatzea interes orokorreko ezinbesteko arrazoen arabera, hala nola lurraldearen antolamendua eta hirigintza”*. Interes orokorreko arrazoen artean, arrazoi sozioekonomikoak ere txertatzea eskatzen dugu. Horretarako Europako “Bolkestein” delako zuzentaraua ez litzateke benetako oztopo, sozioekonomia iraunkor eta jasagarria ingurumen-arrazoiekin ere zuzenki lotuta baitago.

SEIGARRENA: Aplikazio-arauetako 13. artikulua. Bizitegi-kuantifikazioa.

Hiri-lurzoruan inolako etxebizitza-mugarik ez jartzeak (13.1.d artik.) ondorio larriak eduki ditzake hainbat udalerritan. Ondo ikusten dugu birdentsifikazioa lehenestea lurzoru gehiago kontsumitzearen aldean, baina hortik muga oro ezabatzeraz jautsi handia dago. Nolabait mugatu beharko lirateke birdentsifikazio-operazioak, geure ustez.

Etxebizitza hutsaren osagai garrantzitsuari dagokionez, LAGen berrikuspenaren hasierako onarpenak etxebizitza guztien % 2 kontuan hartzeraz derrigortzen du (13.2.b.4. artik.), % 10a erabiltzea iradokiz. Argi dago EAEko udalerririk guztietako errealitateak azken zifra hori ere nabarmen gaitzen duela, beraz, % 10-eko zifra derrigorrezkoa izatea eskatzen dugu, ez soilik iradokizun bat, beti ere etxebizitza hutsen azterketetan oinarrituta zifra hori handitzeko aukera ere irekita utziz.

13.2.c artikuluan harrotze-faktorea azaltzen da, berriz ere. Eta, 1997ko LAGetan bezala, ez da azaltzen zer azterketan oinarritzen den haren funtsa. Eta, 1997ko LAGetan bezala, herri txikiei harrotze-faktore handiena ezartzen zaie, ezberdintasun hori inolako azterketan oinarritu gabe, eta ezberdintasun horren eragin soziolinguistikoa, esaterako, kontuan hartu gabe (udalerririk euskaldun gehienak txikiak dira tamainan). Ondorioz, harrotze-faktorea formulatik ezabatzea eskatzen dugu.

ZAZPIGARRENA: Aplikazio-arauetako 16. artikulua 2.d) puntua. Hirigintza plangintzak sustatu beharreko gaien artean, landarediaren erabilera aipatzen da, baina eraikin eta eremu publikoan bakarrik. Eremu pribatuan ere sustatu beharrekoa dela pentsatzen dugu.

ZORTZIGARRENA: Aplikazio-arauetako 16. artikulua 3. puntua. Ez zaigu egokia iruditzen gas naturala energia alternatiboen multzoan sartzea. Gas naturalaren erreserbak egunen batean agortuko direlako, petrolioarenak bezalaxe, ugariagoak izan arren.

BEDERATZIGARRENA: Aplikazio-arauetako 16. artikulua 4. puntua. Energia autokontsumoko sistemak ez dira mugatu behar lur eremu urbanizaezinetan kokatutako eraikin isolatuei. Praktika orokorra izan beharko litzatekeela iruditzen zaigu.

HAMARGARRENA: Aplikazio-arauetako 16. artikulua 7. puntua. Preskripzio tekniko osagarriak aplikatzea Babes Bereziko Antolamendu Kategorian bildutako lurretan barrena doazen linea elektrikoetarako. Puntu honetan, lineak lurperatzeko aukera lehenestea proposatzen dugu.

HAMAIKAGARRENA: Aplikazio-arauetako 18. artikulua. Lurzorua baliabide gisa. Motz gelditzen dela pentsatzen dugu, eta ondorengo puntuak gehitzea proposatzen ditugu:

1. Lurzorua baliabide natural oso garrantzitsua eta kaltebera izanik, bere berriztagarritasun tasa oso motela da. Hau da, giza ikuspuntu batetik ezin dugu baliabide berriztagarrien artean sailkatu. Beraz, eta kontuan izanik gure orografia konplikaturik, debekatu beharko lirateke baliabide honen higadura ohiko jardura ekonomikoetan, hala nola, baso ustiaketetan eta azpiegituretan. Baso soilketetan eta aprobetxamenduetan, lurzorua galera ezin urratuko marra gorri bezala ikusi beharko genuke.
2. Lurzorua karbonoaren biltegi handiena da, landarediak baino gehiago metatzen duena. Aurreneko puntuarekin uztartuz, baliabide ez berriztagarri honek duen garrantziagatik babes berezia edukiko du.

HAMABIGARRENA: Aplikazio-arauetako 19. artikulua. Landa habitaten gidalerroak. 2. puntua. Nekazaritza ustiatzearen errentagarritasuna hobetzeko beharrezkoa izanik, ekoizpen eredu agroekologikoa sustatzea, uste dugu, esplizituki aipatu beharra dagoela nazioarteko joerei jarraituz.

HAMAHIRUGARRENA: Aplikazio-arauetako 20. artikulua. Paisaiaren arloko gidalerroak. 1. d) paragrafoan: asmo espezifikorik gabeko lurretara mugatzen da baso naturalen hazkundera. Ez dugu egokia ikusten muga hau jartzea. Atlantiar isurialdean, batez ere, espezie exotikoen nagusitasuna nabarmena izanik, lur marjinaletara mugatuko delako gidalerro hau.

HAMALAU GARRENA: Aplikazio-arauetako 20. artikulua. Paisaiaren arloko gidalerroak. 6. puntua: egoki ikusten da giza finkamendu tradizionalen izaera mantendu nahi izatea. Hala ere, beste artikulua batzuetan hartutako neurriak helburu horren aurka joan daitezkeela oso kontuan izan beharko litzateke.

Arabako kasua ondo aztertzea da, zentzu horretan, tradizionaltzat jo daitezkeen herri ugari biltzen dituelako. Bada, egoitza-kuantifikazioan hiri-lurzoruko birdentsifikazioei ematen zaien “amnistia”-k (13.d artikulua) Gasteizen edukiko duen eragin handia kontuan izanda (bertako azken

birdentsifikazioa eta HAPOaren aurrerapena ikustea besterik ez dago), uste dugu Arabako herri txikien izaera nabarmen desitxuratuko dela, hiribururako lekualdatzea are gehiago induzituko delako.

HAMABOSGARRENA: Aplikazio-arauetako 23. artikulua. Baliabide turistikoaren arloko gidalerroak. 1. i) Ondare immateriala aipatzerakoan, gastronomia eta nortasuna aipatzen dira. Hizkuntza, euskara, zehazki sartzea eskatzen dugu. Euskarak duen potentziala aintzat hartuz. Ezin baita gure kultura eta nortasuna ulertu euskararik gabe.

HAMASEIGARRENA: Aplikazio-arauetako 27. artikulua. Tren, portu eta aireportu arloko mugikortasunaren eta logistikaren arloko gidalerroak. Planteatzen den eredu gogorra, azpiegitura erraldoiak abiapuntu, ez dator bat dokumentuari eman nahi zaion ikuspegi aurrerakoiarekin eta beste alternatiba malguagoi ateak ixten zaizkie. Beraz, puntu osoa berridaztea eskatzen dugu. Gaur egunean dagoen trenbide saretik abiatuko den eta eskualdeetan, eremu funtzionaletan alegia, oinarrituko dena. Hiriburuekiko dependentzia ekidin eta lurralde osoaren mugikortasuna eta oreka bermatuko duena.

HAMAZAZPIGARRENA: Aplikazio-arauetako 28. artikulua. Zeharkako gaien eta hiri ereduaren arloko gidalerroak. 1. puntua. Kontuan hartzeko zeharkako gaien artean, garrantzizkoa ikusten dugu euskararen egoerarena ere kontuan izatea. Beraz, gai hau sartzea eskatzen dugu. Gidalerroen berrikuspenaren espainierazko bertsioan sartuta dago, baina ez euskarazkoan, eta ez dago argi bietako zein den zuzena.

HAMAZORTZIGARRENA: Aplikazio-arauetako 31. artikulua. Klima aldaketaren arloko gidalerroak. 4. puntua. Paragrafoaren moldaketa eskatzen dugu termino hauetan: Baso kudeaketa hobetzea erabateko baso soilketak eragin ditzaketen lur galerak ekidituz, lurzorua izanik karbono biltegi garrantzitsuenak. Halaber, degradatutako eremuak berreskuratzea baso naturalen karbono-hustubide izateko azalera handituz.

HEMERETZIGARRENA: Aplikazio-arauetako 33. artikulua. Euskara. Euskarari eman zaion trataera-aldaketa nabarmena izan da LAGen berrikuspenerako oinarritzko dokumentutik hasierako onarpenerako dokumentu honetara. Eta aldaketa hori ez da justifikatu. Atzerakada argia egon da gai honetan, eta ez da inolako azalpenik eman. Ikusi dugu, halaber, Kontseiluak eta UEMAk LAGen aurrerapen dokumentuari 2016ko irailean egindako alegazio-idazki sakonari (http://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/rev_dot_aportaciones_sociales/es_def/adjuntos/Organizaciones%20sociales/160914%20EAE-LAG-Kontseilua-UEMA.pdf) ez zaiola jaramonik egin. Uste dugu euskararen eta euskalgintzaren alorretan hain itzal handiko bi erakunde horien iritzia serioago hartu beharko litzatekeela.

HOGAIGARRENA: Aplikazio-arauetako lehen eranskinaren 1.a.2.d) atalean, biodibertsitatearen tratamenduari buruzkoan, zuhaitz edo masa autoktonoak bereziki aipatzea.

HOGAITA BATGARRENA: Aplikazio-arauetako lehen eranskinaren 1.b.1.a.1. atalean, jardueren kontrolari buruzkoak. Esaten da:

Azpiegitura ororen kokaleku eta diseinuak zenbait alternatiba planteatu beharko ditu lurraldearen harrera-ahalmenaren edo haren hauskortasunaren aldez aurreko edo aldi bereko azterlan bati jarraikiz, zeinak honako alderdi hauek hartuko dituen kontuan gutxienez:

1. Lurraldearen kontserbazio-balioak hainbat ikuspuntutik begiratuta, hala nola ekologikoa, produktiboa, paisaia-arlokoa eta zientifiko/kulturala.

Ikuspuntu sozioekonomikoa ere txertatzea proposatzen da.

HOGETA BIGARRENA: Aplikazio-arauetako lehen eranskinaren 1.b.2.e atalean, Erauzkin jardueri buruzkoak.

Fracking-ari buruz esaten dena da “bazter uzteko” den jarduera dela. Fracking-a erabat baztertzen dela idaztea eskatzen dugu.

HOGETA HIRUGARRENA: Aplikazio-arauetako lehen eranskinaren 2.c.3. atalean, Lehen sektoreko baliabideen ustiapenari buruzko c azpiatalean esaten da:

“Mendi Larreak” antolamendu-kategoriaren kasu berezian, artzaintzari lotutako jarduerak soilik hartuko dira kontuan, eta larreen hobekuntzak egin ahalko dira sastrakak kontrolatuta kentzeari, eta produktu fitosanitarioak, zuzeneko ereintzak eta ongarrituak aplikatzeari jarraikiz

Proposatzen duguna zera da, ongarriketak ekologikoak izatea, jakinda mendi larreen eremu handi bat ingurune karstikoetan gauzatzen dela. Bestalde, produktu fitosanitarioen erabilerak ez du zentzurik ingurune hauetan.

HOGETA LAUGARRENA: Aplikazio-arauetako lehen eranskinaren 2.d.3. atalean. Basoa. Jarduera onargarrietan nekazaritza onartzen da, eta debekatueta, negutegiak aipatzen dira. Nekazaritza jarduera ezin da izan kontrajarria negutegien instalazioarekin. Hau da, nekazaritza eta negutegien arteko bereizketa absurdoa dela iruditzen zaigu.

HOGETA BOSGARRENA: Aplikazio-arauetako hirugarren eranskina. Bizitegi-kuantifikazioa.

LAGen aurrerapen dokumentutik hasierako onarpenerako dokumentura aldaketa bitxi bat jazo da familiaren batez besteko tamaina kalkulatzeko osagaian. Aurrerapenean esaten zen familien tamaina % 1,5 jaitsiko zela urtero; eta, hasierako onarpenean, soilik urte bat beranduago, zifra hori % 1,2-era jaitsi da, harrigarriro. Horrek argi azaleratzen du zer nolako subjektibotasunez eta inprobisazioz proposatzen ari den hainbeste ondorio eragiten dituen bizitegi-kuantifikaziorako formula. Zer zenbaki proposatuko da behin betiko dokumentuan? % 1,1? % 0,85? Uste dugu kuantifikazioa modu serioagoan proposatu beharko litzatekeela, eskualdez eskualde eta are udalerriz udalerriz egindako azterketa serio baten ondorioz, eta ez formula matematiko subjektibo baten ondorioz.

Eta, alegazioetan adierazitakoaren arabera,

ESKATZEN DU:

Alegazio-idazki hau onartua eta tramitatua izan dadila, dagokion moduan eta epearen barnean egin den heinean.

Alegazioetan argi azaldu da Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen berrikuspenaren hasierako onarpenerako dokumentuak ez diola heltzen EAEko lurraldearen antolamendu benetan integralki jasagarriari. Ondorioz, Lurraldea Antolatzeko Gidalerroen berrikuspenaren hasierako onarpenerako dokumentua sakonki birplanteatzea eskatzen da, alegazio-idazki honetan azaldu bezala. Zentzu horretan erantzuna izatea da, azkenik, eskatzen dena.

Gasteizen, 2018ko apirilaren 27an

Sinatuta: Mikel Otero Gabirondo